

# B

BARREN

## Gripe berria Mexikoko elgoibartarren begietatik

Xabier Arriola eta bere familia



**ENJOY SUMMER**  
jolasen bitartez eta dibertitzen  
zaren bitartean,  
ikasi Ingelesa **ELGOIBARREN**



5 urtetik aurrera, ekainaren 29tik uztailaren 24era bitartean, goizeko 10etatik 13etara.  
Ingelesa modu naturalean ikasi aire librean, jokoan, abestien, ipuinen eta eskulanean bitartez

## 2009/2010 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA

HAURRAK ETA GAZTEAK – INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA

HAURRAK 4 urtetik aurrera   GAZTEAK 12 urtetik aurrera

Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.  
Cambridge azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE

## KOLTXOI-DENDA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

**IZARA ETA  
KOLTXETAN  
PREZIO  
BEREZIAK**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR  
24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## Oroimen historikoa

Gerra zibilaren (1936-1939) eta bere ondorio groteskoen inguruko eztabaidari heldu dio gizarteak hil luzez. Batzuen eta besteen jarrera polarizatuak ez dute, kasu batzuetan, basoa ikusten laga, eta, beraz, gertaera larria lasai aztertzea oztopatu dute.

Eskertzeko modukoa da *El Correo* egunkariaren *Ciudadanos* atalean martxoaren 29an argitara emandako artikulua, *El tren de la memoria* tituluduna. Bete-beteen asmatu zuten, gertaera konkretu bati jarri ziotelako atentzioa, eta zehaztasunik gabeko orokortzeak saihestu zituzten. Artikulua irakurtzean, seme-alabok berriz oroituz dugu Ramon Canales, sakontasunez, bera tren hartan egon zen eta.

Ramon pertsona bizia zen, eta famliako tertulietan sarri gogoratzen zuen bere ibilbidea Gerra Zibileko eta ondorengo gorabehera jasanezinetan. Hausnarketa lasai egiten zuen, mendekuaren hauturik egin gabe, baina justiziaren eta ordain moralaren alde beti ere. Errepublikako Manuel Azaña presidentearen hausnarketa bere egiten zuen: "Bakea, errukia, barkamena".


Santoñan preso hartu zutela esan zigun (Oroimen historikoak ere aztertu beharreko operazio politiko-militarrean). 1937ko abuztu amaieran, ia 4.000 errepublikar Laredo eta Santoñako hondartzetako kontzentrazio-esparruetara eta El Duesora bidali zituzten.

El Dueson egon zen Ramon. Aste batzuk geroago, Sevillako trenetan sartu zuten. Francoren indarren presoak ziren. Noizean behin, gure aitak gogoratzen zigun trenen arteko txokea Sevillako Alanis de la Sierrako geltokian, 1937ko azaroaren 19an, 21:00etan.

Istripua misterioatsutzat jo zuten beti. Hilda ikusi zituen lagunak eta errekonozitu ezin ziren beste batzuk. Berak, zorionez, bizirik irtetea lortu zuen, eta esperientzia beldurgarri hura guri azaltzeko bertutea izan zuen, batzuetan geure antzekoekin gizakiok egiteko gai garen basakeriak inoiz ahaztu ez genitzan.

Ramonekin eta bere oroimen historiko miresgarriarekin egoteaz 2007ko maiatzera arte gozatu genuen. Aurten, maiatzaren 2an, maitasunez eta errespetuz gogoratu dugu, ez alferrik, baina: **o r o i m e n** historikoa beti jarri zuen praktikan.

Gloria Canales  
(Orain dela bi urte hil zen Ramon Canales aitaren omenez idatzitako testua)




"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Ramon trenetik bizirik irten zen, eta esperientzia beldurgarri hura guri azaltzeko bertutea izan zuen"**

## Blogari izan nahi?

**11 blogari ditugu dagoeneko.**

Zuk ere zure bloga nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: [elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com) helbidean.



**Egin klik eta ikusiko duzu**

**www.elgoiBARREN.net**



# UXUE ALBERDI

IDAZLEA

**“Batzuetan ematen du idazle batek nobela bat idatzi arte ez dela idazle”**

Uxue Alberdi elgoibartarrak bere lehen eleberria kaleratu berri du: *Aulki-jokoa*. Euskal Herriko herri arrantzale batean kokatuta dago istorioa, Kantoietan, eta 36ko gerra bizi izan zuten aitita-amama batzuren istorioa kontatzen du. Euskara batuan idatzita egon arren, ahozko hizkera lantzen saiatu da Alberdi. Ondo landutako elkarrizketak dira, eta asko dokumentatu behar izan dela aitortu du; baina edozein eleberri idazteko dokumentatu behar dela ere nabarmendu du. Kazetaria, bertsolaria eta idazlea da Uxue, beste hainbat gauzen artean, eta pasio handizat du idaztea.



*Aulki-jokoa* irakurri ez duen bati, istorioaren inguruan zer kontatuko zenioke?

Hiru edo lau pertsonaiaren bizitza kontatzen da bi garai ezberdinetan. Alde batetik gaur egun, 80 eta 95 urte arteko adina daukate; beste alde batetik, pertsonaia berberen bizitza kontatzen da lehen aldian, beraiek 8 urte-tik 25 urtera zeukatenekoa. Salto bat kontatzen da, eta dena nahastuta sare moduko bat osatzen dute: informazioa ere tantaka jasoko du irakurleak. Momentu batean oraindik elkarriketa batean jakingo du zer pasa-

tu zen lehenaldian; beste momentu batean lehen aldiko bat irakurrita konturatuko da zergatik orainaldian diren gauza batzuk... puzzle edo mosaiko moduko bat osatzen jotzen da.

**Hasierako istorioak, baina, aldaketa asko eduki ditu...**

Garapen dezente eduki du, egia esanda. Hasieran *Hamaika makila* izenburua eduki behar zuen. Hamaika pertsonaia ziren hasieran kontatu nahi nituenak. Errealitatean oinarritzen nintzen, eta hamaika pertsona neuzkan

hor. Baina konturatu nintzen hamaika pertsonaia horiek lau pertsonaiatarako ematen zutela; kontatu nahi nuena kontatzeko, nahikoa zirela lau. Orduan, prozesuaren erdian, zazpi-zortzi pertsonaia akabatu nituen, eta indar handiena aulki jokoaren metaforak hartu zuen. Bizitzaren metafora da izenburua: bakoitzak gure aulkia daukagu, eta gu joaten garenean beste bat sartuko da joko horretan. Beti egongo da gaudenak baino aulki bat gutxiago. Gainera nobelan beste bi aulki inportante daude, eta horregatik da *Aulki-jokoa*.

## Lehendabizi *Aulki bat elurretan, gero Aulkijokoa...* esanahi bereziren bat daukate aulkiek zuretzako?

Kasualitate hutsa da, eta gainera saiatu naiz izenburua ebitatzen, jendeak bigarren parte bat zela pentsatuko zuelakoan. Baina ez daukate zerikusirik. Bata ipuinak dira, bestea nobela; bat Suedian kokatzen zen, bestea Kantoietan izeneko Euskal Herriko kostako herri batean... Nobela argitaratu aurretik beste batzuei ere pasatu diet, eta esaten zidaten izenburua hori zela. Hori dauka literaturak, batzuetan zuk ez duzula erabat kontrolatzen: irudi batzuek indar handiagoa hartzen joaten dira, eta azkenean esaten duzu "izenburu artifizial bat ere ez diot jarriko". Kasualitatea da, eta listo.

**Gai asko lantzen dituzu liburuan, baina pare bat esatearren, eta akaso zailenak suertatu zaizkizunak, herri arrantzale batean kokatu duzu eleberria eta gainera 36ko gerraz berba egiteko. Lehenengo eleberria izateko, konplikazio gehiegitxo, ezta?**

Istoria hori kontatu nahi nuen. Makilen istorio hura aitona eta amona bisitatzea joan ginenean etorri zitzaidan: Getarikoak dira, eta nire anaia Anttonek esan zidan: "Begira zer argazki polita dagoen hor". Hamaika aitona-amona zeuden mahaiaren bueltan kafea hartzen, eta beraien bastoi guztiak izkina batean bata bestearen gainean. Irudi hori geratu zitzaidan buruan; askotan abiatzen naiz irudietatik edo esaldietatik, jakin gabe askotan zer kontatu nahi dudana, baina hor geratzen zaizkidanak. Istoria nuen buruan: gaur egun zaharrak diren pertsonaia batzuei buruz, baina banekien ez nuela zahartzarotan bakarrik kokatu nahi, ez naizelako zaharra, eta niretik jarri nahi nuen. Nobela nire sentimenduetatik idatzita dago. Gazteak ere jarri nahi nituen, eta dokumentazio lan handia egin dut. Baina iruditzen zait fikziozko nobela batean gerra ez dela zailagoa kontatzeko beste gauza bat baino; beti dokumentatu behar duzu. Hankarik ez sartzeko lan handia eduki dut, hitzetatik beraietatik hasita.

### Adibide bat jartzeko?

Arrantzaleei buruz ez dakit asko: aitona arrantzalea zen, baina hitz pila bat falta zaizkit; baserritarrei buruz idatzi beharko banu bezala. Ez da nire eguneroko bizimodua. Orduan gerra garaiko elkarrizketa batzuk egin nizkien aitona-amona batzuei Getarian,

gerra garaiko kontu pila bat irakurri ditut, telefonoz dei pila bat egin dizkiet aitari eta aitonari... Adibidez, kaian barkuak lotzeko egoten direnei nik *burdinazko perretxikoak* deitzen nien. Ez nuen behar beste hitzik, baina nobelan ezin nion horrela deitu, eta aitonari galdetu nion. Horrela jakin nuen *amarralekua* deitzen zela. Azkenean gauza txikienarekin sartu dezakezu hanka. Baina polita da gauza pila bat ikasten dituzulako; eta erabiltzen.

**“Ofizioarekiko errespetua erakusten duten idazleei diet errespetu handia”**

### Informazioa biltzen eta istorioa garatzen zenbat denbora behar izan duzu?

Idazten bi urte egon naiz; eta istorioarekin buruan eta prestatzen, guztira hiru urte. Ofizioarekiko errespetua erakusten duten idazleei diet errespetu handia, benetan horretan sartzen direnak. Lanik egin gabe ezin dela ondo idatzi uste dut. Beste batzuk, akaso, azkarrago egingo dute, ni beste mila gauzetan ere banabil, baina liburu batek lan handia eskatzen du. Niretzako idaztea ez da lan bat, pasio bat da, eta hiru urte iraun beharrean hamar iraun behar bazituen, ba hamar. Ez da dirua irabazteko egiten dudana lan bat, edo hil bukaerara iristeko; horretarako beste lan batzuk egiten ditut. Idaztea gustuz egiten dudana zerbaite da, baina behar adina denbora eskaini nahi nion zerbaite.

### Zerk inspiratzen zaitu?

Ez dut inspirazioan sinesten. Eskoletara-eta joaten naizenean literaturaz hitz egitera, Andoni Egañaren esaldi batekin hasten naiz: "Irudimena mugatua da". Inspirazioa beti pentsatu izan dugu dela, gora begira egonda etortzen zaizun zerbaite, eta nik etorrian ez dut sinesten; sinesten dut ekarrian. Zenbat eta gehiago landu, orduan eta gauza

gehiagok emango dizu atentzioa, eta gauza gehiagotan ikusiko duzu istorio bat. Sor-kuntza bertute bat baino gehiago jarrera da; eta jarrera hori landu egin behar da.

### Aukeran zer nahiago, ipuin txikiak kontatzea ala eleberriak?

Ez dakit galdera horri erantzuten. Istoria hau kontatzerakoan banekien koadrila bat zela, eta orainaldi bat islatuko zuela, eta baita lehenaldi bat ere, mundu oso bat azaltzen duen eta ipuin batekin ezin nuen kontatu. Baina barruan ipuin txiki pila bat daude, horiek deitzen didatelako atentzioa. Ez nuke jakingo esaten den ezintasuna, ez zaidala gustatzen... oso ipuin zalea naiz, irakurtzeko ere bai. Mezua asko inporta zait, baina estetika eta momentuko plazerra ere bai. Istoria txiki horiek, bizitasun hori asko gustatzen zait. Garapen logiko bat ere bada: bertsoak idazten hasi nintzen, gero artikulua motzak, gero gutunak, ipuinak eta orain istorio txiki askoko eleberria. Ez du esan nahi garapen bat denik eta lehenengoa errazagoa zenik azkena baino; baina garapen logikoa ere izan daiteke. Batzuetan ematen du idazle batek nobela bat idatzi arte ez dela idazle. Niretzako ipuingile oso onak daude nobelarik idatzi ez dutenak eta ez diot besteari zailtasun handiagoa ikusten.

### Zure burua definitzerakoa zer esango zenuke zarela: bertsolaria, kazetaria ala idazlea?

Ni Uxue naiz, eta egiten ditut egiten ditudan gauzak. Ez zait gustatzen definitzea, ez luke logikarik edukiko. Denbora asko pasatzen dut bertsoan, denbora asko idazten... Baina niretzako kazetaritza ofizio bat da, gustatzen zaidan ofizioa. Eta bertsoaritzak eta literatura ez dira ofizioak: beste lanetan bezainbeste denbora eta gogo jartzen dut, baina pasio bat dira. Lanean denbora mor-do bat emango banu ere, aterako nuke tar-tea idazteko, edo bertsoarako. Momentuz ez daukat aukeratu beharrik, beraz, zertarako aukeratu, aukera badaukat ez aukeratzeko?

### Hirugarren aulki baten berri idatziko duzu?

Espero dut ezetz! Ez dakit, ez naiz ausartzen. Ez daukat ezer definituta buruan: badaikit idazten jarraituko dudala beti idazten dudalako, baina ez daukat proiektu jakinik eta izenbururik buruan.

# GRIPE BERRIA

## Mexikoko elgoibartarren begietatik



Ezkerreko erretratuan Xabier Arriola emaztearekin eta seme-alabekin. Eskuinean, Aloña Aranburu seme-alabekin.

**Behi eroak izan ziren orain dela urte batzuk, hegazti gripea ondoren, eta orain dela pare bat aste txerri gripea hasi zen. Gaixotasun horren jatorria oraindik topatu ez arren, adituek neurriak hartzeko gomendioa eman dute. Mila kasu inguru atzeman ditu Munduko Osasun Erakundeak hogeit hamar herrialdetan, eta Mexikon 25 bat lagun hil dira gaixotasunaren ondorioz. **BARREN** astekaria Mexikon bizi diren elgoibartar batzuekin egon da egoera nola bizi duten azaltzeko. Bestalde, Margarita Biziola, Osasun Publikoko zuzendariarekin ere egin du berba astekariak, gaixotasun honi buruzko informazioa jasotzeko.**

**Ainhoa Andonegi**

**A**pirilaren amaiera aldera Mexikotik zetorren gaitz baten oihartzuna entzuten hasi zen. Txerri gripea izena ipini zioten, eta oso arriskutsua zela esan zuten. Inork ez zekien gaixotasunaren jatorria: txerriengandik gizakiengana pasatu zela zabaldu zen hasieran, baina ondoren, hori ez zela zuzena esan zuten adituek, eta A gripea deitzen hasi ziren. Margarita Biziola, Jaurlearitzako Osasun Publikoko zuzendariaren esanetan birus berri batek sortu du gaixotasuna: txerrietan aurkitu ez den birusa, alegia. Bestalde, gripe honen sintomak ohiko gripearen oso antzekoak direla argitu du osasun adituak: sukarra, nekea, eztula eta buruko mina.

### Mila kutsatu inguru

A gripearen lehenengo kasuak Mexikon azaldu baziren ere, munduko hainbat he-

rrialdetan aurkitu dituzte gaixotasuna duten pertsonak. Aste honetan eman dituzten datuen arabera, hogeit hamar herrialdetan mila lagun

**“Euskal Autonomia Erkidegoan A gripea kontrolpean dago eta kutsatzeko arriskua oso txikia da”**

*Margarita Biziola,  
Osasun Publikoko zuzendaria*

baino gehiago kutsatu dira. Mexiko izan da herrialde kaltetuena, 590 kutsatu eta 26 hildakorekin. Euskal Herrian 30 urteko gizo-

nezko bat etorri zen Mexikotik gaixotasunarekin, baina garaiz harrapatu zuten eta egun gutxiren buruan irten zen ospitaletik. Margarita Biziolaren esanetan, baina, ez dago kezkatuta egoteko arrazoirik: “Osakidetza gaixotasuna kontrolpean dauka, eta Euskal Autonomia Erkidegoan kutsatzeko arriskua oso txikia da”.

### Gripearen kontrako neurriak

Adituen arabera, ohiko gripea bezala kutsatzen da. Hala ere, kutsaketa kasuak izan diren herrialdeetara bidaiatu dutenek eta eurekin harremana izan duten pertsonak dute arrisku handiena. Osasun Publikoko arduradunek ondorengo neurriak hartzeko gomendioa eman dute: sudurra eta ahoa zapi batekin eztali, eskuak sarritan garbitu, gaixoekin kontaktua ebitatu.

Xabier Arriola, Aloña Aranburu eta Javier Arrillaga Mexikon bizi diren elgoibartarrak dira. Lehenegoa orain dela 19 urte joan zen Mexikora pilotan jokatzera, eta gaur egun Pueblan bizi da bere familiarekin. Aloña, berriz, beka batekin joan zen Mexikora orain dela hamabost urte. DF hiriburuan bizi da, senarra eta bi seme-alabekin. Javier Arrillaga hiriburutik 30 kilometrora dagoen herri batean bizi da. Gurasoak elgoibartarrak ditu, eta urtero etortzen da gure herrira lagunak eta senideak bisitatzera.

## Galderak:

1. Zelan bizi duzue A gripearen egoera?
2. Zure inguruan kutsatu da norbait?
3. Gaixotasuna kontrolpean dagoela uste duzu?



**“GOBERNUAK  
GAUZA ASKO  
EZKUTATZEN  
DITUELA USTE  
DUT”**

Xabier Arriola

1. Gripeak batez ere Mexiko DF hiriburuan eragin du. Gu Pueblan bizi gara, hiriburutik 130 kilometrora, eta hemen egoera lasaiago dago. Hala ere, hiriburutik jende asko etortzen da hona, eta kalean eta lanean maskarekin dabil jende gehiena. Eskuak sarritan garbitzeko gomendioa eman digute. Umeak eskolarik gabe daude, zinematik itxi egin dituzte, eta jende asko biltzen den beste hainbat leku ere bai. Apirilaren 30ean atera zuten dekretu baten ondorioz, oinarritzko lantokiak bakarrik egon daitezke zabalik, eta beste guztiak itxi egin behar ziren. Nik zapata enpresa batean egiten dut lan, eta momentuz ez dugu itxi. Uste genuen inspektorea etorriko zela, baina ez da inor azaldu.

2. Ez zait horrelako kasurik tokatu nire inguruan. Esaten dute 300 kasu inguru daudela, eta horietatik hamasei hil direla. Hala ere, ez dakigu ziur zein den egoera, Gobernuak gauza asko ezkutatzen dituela uste dut.

3. Garaiz harrapatu dutela iruditzen zait, eta egoerak hobera egin du azken egunotan. Hala ere, inork ez daki nondik sortu den. Esaten da hemendik gertu dagoen txerri granja batean azaldu zela gaixotasuna, baina ez dakite seguru. Egunkarian azaldutakoaren arabera, %90ean jaitsi da txerriekin salmenta. Osasun adituek esan dute lasai jateko txerriak, ez dagoela kutsatzeko arriskurik, baina jendeak badaezpada gutxiago jaten du.



**“GAUZAK ONDO  
EGITEN ARI DIRA  
ETA EGOERAK  
HOBERA EGINGO  
DU”**

Aloña Aranburu

1. Hasieran nahiko kezkatuta geunden, ez baikenekien nola egingo zuen aurrera honek guztiak. Gainera, Gobernuak hartutako neurriak oso gogorrak izan ziren, eta ez genekien zenbat egunetarako izango zen. Egun batetik bestera umeak eskolarik gabe geratu ziren, eta jatetxeak, zinemak eta beste hainbat leku itxi egin zituzten. Etxean geratzeko eskatu ziguten, eta horrela egon gara hainbat egunetan. Hala ere, garraio gehienak martxan daude, eta nik neuk ez dut arazorik izan lanera joateko. Kalean eta lanean maskarillak jantzen ditugu, eta kontaktua ebitatzeko esan digute. Mexikarrek musuak emateko eta besarkatzeko ohitura handia daukate, edo eskua emateko eta egunotan ez dute horrelakorik egiten.

2. Ez zait kutsaketa kasurik gertu tokatu, eta momentuz behintzat lasai nago. Kutsatzeko arriskua handia da, baina beharrezko neurriak hartuta, eta bizimodua apur bat aldatuta, ez dut uste arazorik izango dugunik. Gu gomendio guztiak jarraitzen ahalegintzen gara. Azken egunotan egoerak hobera egin duela uste dut, eta Gobernuak hartu beharreko neurriak hartu dituela iruditzen zait. Gauzak ondo egiten ari dira, eta egoerak hobera egingo duela iruditzen zait.

3. Inork ez daki nondik sortu den gaixotasuna: batzuk diote Oaxakan aurkitu zela lehenengo kasua, eta beste batzuk diote Veracruzen izan zela, baina inork ez daki. Hala ere, azken notizien arabera, ez da inor gehiago hil, eta gainera, kutsaketa kasu gehiago ere ez omen dira aurkitu azken 24 orduetan. Albiste onak dira horiek.



**“INFORMAZIO  
GEHIAGO  
JASO AHALA,  
LASAITU EGIN  
GINEN”**

Javier Arrillaga

1. Azken hamar egunotan gure bizimodua aldatu egin da. Kutsaketak ebitatzeko etxetik ez irteteko eskatu du Gobernuak, beharrezkoa ez bada behintzat. Zinemak, jatetxeak eta beste hainbat leku itxi egin dituzte, eta futbol partidak ere atea itxita jokatu ziren asteburuan.

2. Gure inguruan ez da inor kutsatu, eta lasai gaude. Egunotan izan ditugun aldaketek ez dute ondorio larriarik izan: ura, botikak eta jatekoa baditugu, eta neurriak hartuta, ez dago bestelako arazorik.

3. Bai. Hasieran ez zekiten zeren kontra egin behar zuten. Jendea automedikatu egiten zen, gaixotasunaren sintomak arinduz, baina zer zen jakin zutenean, jendeak bazekien zer egin. Hasieran alarma piztu zen, baina informazio gehiago jaso ahala, lasaitu egin ginen.

*Egunkarietako titular nagusiak hartu ditu gripeak Mexikon.*





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Katxi porreta!!!

Mila arazo gainditu eta gero, iritsi zen azkenean ere gure mozioa udalerean bozkatzera. Ez genuela zentso aktiboaren %15 behar, sinadura eskutakada batekin nahikoa izango genuela, aipatutako puntuen alde ia denek egingo zutelara eta abar eta abar, zioen hasiera goxo hartan. Gero aldiz, hitzak haizeak eramango balitu bezala, ez ginela kopuru finkatura iristen eta aurrerakirik ez egiteko, ba... "laguntza" beharko genuela. Gauzak gauza, iritsi zen azkenean ere helmugara. Helmuga bai, baina ez amaiera. Hor ez da bukatzen, harrigarriena orain dator: bozkatzeko orduan zeinek atzera bota adierazpena... eta... bai, bera eta bere taldeak. Bai bai, hasiera batean, hain zintzo, hain onargarri, hain gertuko, hain presu, hain hain... agertu ziren berberak. Ez dakigu ez, ez zerk, ez nork, ez nondik, ez norantz emandako haize bolada izan den. Zer dibinitatek bultzatu dituen "ez" esatera.

Ziur dakiguna da, Euskal Preso Politikoen "oinarri-oinarrizko" eskubideak defendatzen dituen mozio bat atzera bota dutela. Preso gaixoen kaleratzea, kondena betearen askatzea eta dispersioaren amaiera eskatzen duen adierazpenak EAJren ezezkoa jaso duela.

Bazirudien gizartean ondo errotutako printzipioak zirela, politika zentzugarri hauek askotan salatuak izan zirela, bai beraien ahoetatik eta bai nazioarte-

ko begiraleen aldetik. Baina, ezetz dirudi.

Hori dela eta, pare bat barne burutapen:

- Atzera pausu bat iruditzen zaigu, egun gauden egoera hontan, hain oinarrizkoak diren printzipioak ez onartzea.

- Mozio hau atzera bota dutenek esan dezatela transparentziaz, zergatik egin duten egin dutena. Eta ez digu balio *a la carta* erabiltzen duzuen "giza eskubide guztien defentsa ez dela testuan sumatzen". Beste askotan ere, ez omen du balio...

Kontuak kontu, ez pentsatu bidea hemen bukatzen denik. Ez pentsatu ipuin hau hemen bukatu denik, jarraitu du kapitulu goxoago baten.

Bitartean, zure erantzunaren zain gelditzen gara. Arreta handiz,

**Elgoibarko Amnistiaren  
Aldeko Mugimendua**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:








Ainara Sedano

Epa, Noe, duela egun gutxi lagun batzuekin afaltzeko elkartu nintzen, eta beti bezala elkarrizketa gai batetik bestera saltoka erabili genuen, lorez lore. Gerta-kizun batzuk hemendik, maitasun

batzuk hortik, txutxumutxu batzuk alde batetik, arazoak bestetik... eta momentu batean bakoitzaren (eta, nola ez, besteen) sinesmenari buruz aritu ginen bero. Jaio nintzenean eliza katolikoan bataiatua izan nintzen, eta beranduago jaunartzean parte hartutakoa naiz ni (arrazoiak aitortu beharko banitu...), baina konfirmazioarako prestakuntza egin nuen arren, adin horretan banuen jada aukeratzeko gaitasunik, eta egin nuen nire aukera. Ez nintzen konfirmatu.

### “Zer litzateke bitzitza bekaturik gabe?”

Egia esatekotan, ez dut elizan sinesten eta ez dut uste erlijio katolikoan sinesten dudarik ere (zientzietakoa naizelako ote?), baina zerbaitetan sinesten dudala aitortu beharra daukat. Zer den? Nork daki, nik ere ez dakit eta. Baina mundu bat haratago dagoen traste horrek bidaltzen dizkidan gauzak somatzen ditut uneoro. Egunduz egunduz batean esnatzea, nork bere balkoian landatutako tomateak hazten ikustea, urtean lehengo bainu-jantzi eta txankletak (oh txankletak!!!! Horiek badira nire jangoikoa) jantzi ahal izatea, bila dabilenak behar duena aurkitzea, amoreak arantzan izatea noizbehinka (bakeak egiteko garaia helduko delako), denboraldiko azokako lehen marrubiak, autoaren aurreko kristalaren kontra lehertzen den lehen eltxoa (uda bidean da!), irratian gustuko abesti hura aditzea... Nik uste nire Jainkoak, edo dena delakoak, gauza txikien Jaungoikoa behar duela izan; eguneroko gauzetan oinarritzen dena, gauza txikietan ilusioa bilatzen eta aurkitzen duena, eta goxoak diren hainbat gauza zigortzen ez dituena. Eta, bai, pekatuak ere egin ditut bizitzan zehar, eta praktikatzeko jarraitzeko asmoa daukat gorputzak ahal duen heinean behintzat. Zer litzateke, bada, bitzitza bekaturik gabe?



Noemi Otegi



Bizitza pekaturik gabe, ilusiorik gabe edo federik gabe ez litzateke ziur bizitza izango. Unibertsitatean nengoenean erlijioei buruzko eskolak izaten nituen, eta guztiek ere zentzu argia zuten: gizartearen oreka eta ordena mantentzea. Esaterako, Indian behiak sakratuak izatearen arrazoa oso sinplea da, etekin handiagoa ematen zuten behiek bizirik, hilda baino! Eta horrela, hainbat eta hainbat erlijio, uste edo sineskizunek, badute zentzu praktikoa. Baina, hala ere, zin egin behar dizut nik badudala barranean fedea edo sinesmena, nahiz eta lojikari ez erantzun, nahiz eta hotzean pentsatuta zentzu argia ez topatu, ziurrenik behar bati erantzuten dion fedea da. Ezin pentsatu mundua hain eder edo zitala dela, zientziak horrela agintzen duelako. Nola pentsatu bizitzaren zikloa medikuntzak aurreikus dezakeela; nola pentsatu izarren izana astronomiak azal dezakeela; edota ilargiaren magia ez dela magia, zientzia baizik! Behar dut pentsatu badagoela beste ezer, gugandik haratago doana, logikarik ez duena, eta ikusteko edo ikutzeko gai ez garena! Ulertzeko gai ez garena, soilik sinistu edo ustea izatearen baitan dagoena, beste zerbait, neska! Hain karratua, matematikoa edo konkretua ez dena, alegia ni letretakoa naiz, zu ez bezala!!

### “Agian, badugu izkutuko behar bat, zerbaitengan sinisteko”

Hala ere, nahiz eta esan gero eta sinesgabeagoak garela, bada zerbait ezin dezakedana ondo ulertu, federik ez badugu, logikaren baitan bizi bagara, guztiari arrazoi zientifikoa topatzeko gai bagara, zein da arrazoa, oraindik ere, egunkari guztietan, horoskopoa bezain sineskeria ez logiko eta ez zientifikoa mantentzeko? Agian, badugu gehientsuenok ere izkutuko behar bat, lehen aipatzen nizuna; zerbaitengan sinistearena, nahiz eta Lola Sorginaren horoskopoa izan!!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Maiatzaren 13an jokatuko dute Athleticek eta Bartzelonak finala Valentzian.

## Nork irabaziko du, zure ustez, Errege Kopa?



**Eugenio Caro**  
64 urte, aurre-jubilatua

Bartzelonak aukera handiagoa dauka, baina futbolean inoiz ez da jakiten. Gainera, Llorente oso egocerra onean dago, eta lana emango dio Bartzelonari. Nik partida ikusteko asmoa daukat, futbola ikaragarri gustatzen zait, eta horrelakoak ezin dira galdu!



**Txomin Arriaga**  
59 urte, estanpadorea

Bartzelona Athleticekin konparatzea fantasmada hutsa da. Nire ustez Bartzelonak irabaziko du, eta erraz gainera. Ni ez naiz futbolzalea, ez dut jarraitzen, eta Errege Kopako finala ere ez dut ikusiko. Parean tokatzen bada, akaso, egingo diot kasu, baina ez nago zain.



**Zuhaitz Gurrutxaga**  
28 urte, futbol jokalaria


Gaur egun, Bartzelona dagoen moduan ikusita, faborito argia bera da. Daukan mailan jokatzen badu, ez Athleticek eta ezta beste inork ere ezin dio Bartzelonari irabazi. Bilbo aldean baditut lagunak, eta nahiago dut Athleticek irabaztea, baina ez nuke diru askorik jokatuko!



**Mariaje Arriola**  
60 urte, etxekoandrea

Nik nahiago duk Athleticek irabaztea, baina zaila edukiko du. Gure etxean futbolzale amorratuak gara, eta desiratzen gaude partida hori ikusteko. Familian erditbituta gaude Athleticen eta Realaren zaleak. Ni, berez, Bartzelonaren zalea naiz, baina orain Bilbokoan alde nago.





**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Jose Angel Zabala

# MAHASTI

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



*Urdaitegi  
eta  
ardandegia*



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



### Baranda berriak arriskutsuak dira:

“Herriko hainbat lekutan baranda berriak jarri dituzte, eta hori txalotzekoa da, lehengoak oso egoera txarrean zeuden eta. Hala ere, baranda berri horiek arriskutsuak direla iruditzen zait, umeentzako, batez ere. Madalako parkean ume asko ibiltzen direnez, ezbeharren bat gertatu aurretik, segurtasun neurriak hartzeko eskatu nahi nioke Udalari. Mila esker”.



**Ermuaranbide kalean beste zebra-bide bat behar da:** “Ermuaranbide kaleko 11 zenbakiaren aurrean zebra-bide bat behar da. Bidea gurtzatu behar izaten dugu zaborra botatzeko, eta autoak oso bizkor ibiltzen dira. Ingurune horretan pertsona bat baino gehiago harrapatu izan dute autoek, eta beste ezbeharren bat gertatu baino lehen, autoak motelago ibiltzeko neurriak hartu behar dira”.

### Santa Ana kaleko errotonda berria isleta arriskutsu bat jarri dute:

“Santa Ana kalean, Sigmako zubiko sarreran, errotonda berria egin dute, baina nire ustez ez dute ondo egin. Isleta arriskutsu bat ipini dute, eta ondorioz, maniobra arriskutsua egin behar dela iruditzen zait. Estazio kaletik Sigmako zubira sartzeko, batez ere, Debako norabidea hartzeko, traba handia egiten du isleta horrek. Oraindik garaiz dabilta aldaketak egiteko. Nik uste dut isleta apur bat moztu egin daitekeela, edo erabat kenduta, marrak margotu lurrean. Askoz hobeto geratuko litzateke”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12

PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA



UNIBERTSITATEA  
BIZITZEKO  
PREST!

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

*etorriko zarela jakinarazi!*

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**MAIATZAK 21 - 17:30** osteguna **2.zikloa**

ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // [bguerenu@eps.mondragon.edu](mailto:bguerenu@eps.mondragon.edu)

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**MAIATZAK 14 - 18:00** osteguna

OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // [cgarate@eteo.mondragon.edu](mailto:cgarate@eteo.mondragon.edu)

**MAIATZAK 21 - 18:00** osteguna

IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // [ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu](mailto:ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu)

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**MAIATZAK 11 - 11:00** larunbata **2.zikloa**

ESKORITZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // [sarrera@nuhezi.mondragon.edu](mailto:sarrera@nuhezi.mondragon.edu)

## Meka Lanbide Eskola inauguratu dute

Irailean hasiko da lehen ikasturtea



Lanbide Heziketan erreferentzia izateko helburuarekin jaio den Meka proiektua astelehenean inauguratu zuten agintariek Albitxuriko industrigunean. Hezkuntza, enpresa eta instituzio publikoetako hainbat ordezkari izan ziren ekitaldian: Iñaki Mujika, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea; Igone Azpiroz, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaria; Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea eta BHI Institutuko eta IMHko zuzendari eta arduradunek, besteak beste. Iñaki Konde elgoibartarra ere bertan egon zen, eta orain dela gutxi hil den Alberto Ortueta, AFMko zuzendari izandakoa, gogorarazi zuen, orain dela zazpi urte Meka proiektua abian jartzeko egin zuen ekarpenagatik.

### Kurtso hasiera irailean 250 ikaslerekin

Lehen promozioa osatuko duten 250 ikaslek estreinatuko dituzte Meka zentroko instalazioak irailetik aurrera. Ikasturte hasieran, baita ere, tailarren ekipamenduak martxan daudela eta erakustaldi modura, beste ekitaldi bat antolatuko da erakina eta bere funtzionamendua bertatik bertara erakusteko.

Meka proiektuak, bestalde, 7,5 milioi euroko kostua izan du. Eusko Jaurlaritzak 6,5 milioi euro ipini ditu (5,5 eraikina egiteko eta milioi bat ekipamenduetarako), eta gainontzekoa erreminta-makina alorreko 78 enpresa laguntzailek emandako diru-laguntzekin osatu da.

## Osoko Bilkurak ez du onartu preso gaixoen aldeko mozioa

Elgoibarko ezker abertzaleak preso gaixoen aldeko mozioa sartu nahi zuen Udalean, baina horretarako legez 1.500 sinadura inguru behar zituzten. “Alfredo Etxeberria alkateak esan zigun 200-300 sinadura bilduta nahikoa izango zela. Guk 700 lortu genituen, baina alkateak, osoko bilkurarako egun gutxi falta zirela, aurrez esandakoari muzin eginez, legeak aipatutako kopuru zehatza behar genuela esan zigun. Hori dela eta, gure alternatiba mozioa alderdi politiko baten bidez sartzea zen, eta EB-Aralar alderdiaren laguntzarekin egin genuen”, azaldu du ezker abertzaleak.

Lau gauza eskatzen zituen ezker abertzaleak: “Frantzia eta Espainian euskal presoek aplikatzen dieten politika penitentiarioa amaitzea; gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak berehala eta baldintzarik gabe kaleratzea; biziarteko espetze zigorra indargabetzea, eta isolamendu eta bakartasunaren kontra euskal preso politikoei Euskal Herrian egoteko eskubidea izatea”. Osoko Bilkuran bozketaren emaitza ondorengoa izan zen: EB-Aralar eta EAK alde, EAJ-PNV eta PPK kontra, eta PSE-EE abstenitu egin zen. Bozketan abstenitzeagatik PPK “epel jokatzeko” leporatu dio PSE-EEri. Bestalde, EAJ-PNVk mozioa hankamotz ikusten du “eskubide guztien defentsa ez delako agertzen”.

## Zaborren errausketarentzako alternatiba aurkeztu du Aralarrek



Debabarrena bailarako hiri hondakinen kudeaketarako proposamena aurkeztu zuen Aralar alderdi politikoak, jogan zen astean Eibarren eskainitako prentsaurrekoan. Hondakinen tratamenduan garapen iraunkorra helburu duten teknologien aldeko apustua egingo dutela azaldu zuen. Aralarreko kideek etorkizuneko apustua egiten dutela nabarmendu zuten, eta “ez epe motzekoa, errausketa bezala”. Euren iritziz, aurkeztu duten alternatiba zentzuzko kudeaketa ziklo batean oinarritzen da.

## Izena **Efitermik enpresa**



Elgoibarko Efitermik enpresak 2009ko enpresa onenaren saria lortu du Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Ekintzaile sarietan. Igor Fernandez, Humberto Fernandez eta Sergio Rodriguez elgoibartarrek, Ermuko David Gonzalezekin batera, orain dela bi urte jarri zuten enpresa martxan. Besteak beste, Txillidalekun energia geotermiko sistema ezartzen ari dira. Bestalde, bigarren saria Unai Leiaristi elgoibartarrak jaso zuen.

## Zenbakia **412**

Lourdesera gaioxekin bidaia egiteko diru bilketan 412,20 euro bildu dituzte antolatzaileek, eta eskerrak eman nahi dizkiete dirua eman duten elgoibartarrei. Bidaia maiatzaren 22tik 25era bitartean egingo dute.

## Irudia **Juan Mari Mendizabal kartzelaratu dute**

18/98 auziagatik baldintzapean aske zegoen Juan Mari Mendizabal atxilotu zuten Guardia Zibilek apirilaren 30ean, eta herritarrek manifestazioa egin zuten, egoera hori salatzeko. Defentsako abokatuak elgoibartarra eta gainontzeko zazpi atxilotuak aske lagatzeko eskaera egin zuen, batetik ez dagoelako euren kontrako sententzia garbirik, eta bestalde, askok gaixotasun arazoak dituztela argudiatuz. Eguaztenean eman zuen epaia Auzitegi Nazionalak, eta baldintzarik gabeko behin-behineko kartzela zigorra jarri diete, eta Soto del Realen dago Mendizabal. ETAko kide eta buruzagi izatea egotzi zion Auzitegi Nazionalak Juan Mari Mendizabali. Epaia 13 urteko kartzela zigorra ezartzen zuen elgoibartarrentzat, baina zigorra Bonxeko (Galizia) espetxean betetzen ari zela, 2008ko ekainean behin behineko askatasuna eman zioten 6.000 euroko bermea ordaindu eta gero.



## **Hainbat lapurreta izan ziren joan zen astean Elgoibarren**

Udaltzainek bi lagun atxilotu zituzten apirileko azken asteburuan, Madalako Sugar gozoki dendan lapurretan egiteagatik. Sua tabernako jabeak eman zuen lapurretaren abisua, eta udaltzainak berehala etorri zirela adierazi du Sugar dendako nagusiak. Ateko kristala apurtu, eta kanpoko makinan zeuden hainbat gozoki ostu zituzten. Bestalde, apirilaren 27an, Judith Edergintza estetika zentroan lapurretan egiten ahalengindu zen emakume bat atxilotu zuten.

## **Josefa Astigarra izan da apirileko ferriako sariduna**

Apirilean ere Herriko Antzokiko ikuskizunetarako bi sarrera zozketatu zituzten azken zapatuko ferain, aurreko hilabeteetan bezala. Orain Josefa Astigarraga izan da sariduna. Sari horri esker, maiatzean Herriko Antzokian egongo diren ikuskizun eszenikoetara doan joateko aukera izango du.

## **Estatuko diruarekin egingo diren obrak eman dituzte**

Elgoibarko Udalak adjudikatu ditu dagoeneko Estatuko diruarekin egingo dituzten lau obrak. Sigma auzoko eskailera mekanikoak Aikia eraikuntza enpresak jarriko ditu, 131.883 eurotan; Artzetxe auzoko saneamendu lanak egingo ditu 236.665 eurotan; eta Etxaidek Erretxindiko berrikuntza lanak (508.235 euro) eta Aiaastia-San Migel auzora ura eramateko lanak (725.325 euro) egingo ditu.

## **1954koen kinto bazkaria**

1954an jaiotako elgoibartarrek ekainaren 13an egingo dute kinto bazkaria. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte, Euskadiko Kutxako ondorengo kontu korronte zenbakian: 3035 0007 21 0071056285

## Haurreskola berria izena emateko epea maiatzaren 15era arte egongo da zabalik

Udaletxean matrikulazioari buruzko informazioa eta argibideak ematen ari dira

**D**atorren ikasturtean umeak Mendaroko haurreskolan matrikulatu nahi dituzten gurasoek maiatzaren 15era arteko epea izango dute. Izanematea Udaletxean bertan egin behar da, eta han eskuratu daiteke matrikulazioari eta ikasturteari buruzko informazioa. Astelehenean bertan ireki zuten matrikulazio epea.

Izan ere, udaletxean informazio mardoa eskuratu dezakete gurasoek, hainbat eskuorri eta diptiko banatuko dituzte eta. Gurasoek bertara joatea komeni dela adierazi dute Udaleko arduradunek, orriak ondo bete ahal izateko.

Orain apuntatuko dituzten umeak irailen zein urrian hasiko dira haurreskolan. Apuntatzeko tramiteak Udaletxean egiten ari badira ere, Mendaroko haurreskola berria partzuergoarena izango da, eta erakunde hori arduratuko da langileak kontratatzeaz eta gainerako gestioez.

### Ekainerako, lanak amaituta

Bizkotxeria zaharrea dihardute haurreskola berria eraikitzen, eta lanak martxa onean doaz, Udaleko arduradunen arabera. Lanak ekainerako amaituta egotea espero dute. Ondoren, partzuergoak altzariak jarriko ditu.

Udazkenean martxan izango den haurreskola berria Mendaron egondako lehenengoa izango da. Ekipamendu berri horren bidez, Mendaroko herriak orain arte izandako gabezia bati aurre egin nahi zaio.

Haurreskolen partzuergoaren web orrian ([www.haurreskolak.net](http://www.haurreskolak.net)) oraindik ez dute Mendarokoa sartu, baina martxan dagoenerako agertuko da zentruari buruzko informazio zehaztua —gela kopurua, ume kopurua, ordutegia eta abar—.



### Ikastolako eraikina handitzen ari dira, teilatu zaharra bota eta gero



Martxa onean egiten ari dira San Jose ikastolako handitze lanak. Teilatu zaharra bota ondoren, eraikina handitzeari ekin diote. Mendaroko biztanleriak gora egin duenez, ume kopuruak ere gora egin du. Ikastola handiagoa izango da etorkizunean, eta bost gela gehiago izango ditu. 2tik 12 urtera arteko 192 ume ikasten dute Mendaroko ikastolan.

## Mendaroko mendi itzulian 26 lagunek parte hartu zuten

**M**endaroko herriari mendiz mendi buelta emateko, 26 lagunek eman zuten izena zapatuan. Ekimena gaztetxeak antolatu zuen, aurreko bi urteetan bezala. Gaztetxe-tik irten ziren, eta honako ibilbidea egin zuten: Beraseta, Madariaga, Larraskanda, Sasiola, Ormola eta Arnobate. Handik gaztetxera jo zuten berriro. Buruan joan zirenek lau ordu eta laurden baino gutxiago behar izan zuten ibilbidea osatzeko. Zatikik gogorrena hasiera izan zen, Arnoko igoera erabat lokaztuta zegoen eta.



## Bi astetan bi sari eskuratu ditu Anton Urreisti pintoreak, Berrizen eta Palentzian



Iaz urte oso ona izan zuen Anton Urreisti margolari mendarorarrak, baina aurreten ere bikain dihardu pintura lehiaketetan. Apirilaren 25ean Berrizko kaleko pintura lehiaketako lehen saria eman zioten, eta 550 euro eskuratu zituen. Lehiaketako lanak maiatzaren 15era arte ikusteko aukera dago, Berrizko Kultura Etxean.

Astebete geroago, maiatzaren 3an, Palentziako Grijota herriko lehiaketan parte hartu zuen, Espainiako margolari trebeenekin lehiatzeko. Hirugarren saria eman zioten, eta 400 euroekin itzuli zen Mendarora.

### Atzo egin zen Tenerifeko bidaiaren zozketa

Mendaroko Udalak zozketatutako bidaia honako bi bikoteek irabazi zuten: Mari Carmen Bernedok eta Antonio Iriondok batetik, eta bestetik Maria Jesus Arakistainek eta Agustin Lazarobasterrek. Zozketa atzo goizean egin zuten udal-etxean eta lagun asko hurbildu ziren. Saria irabazi duten bi bikoteek Tenerifera joateko aukera lortu dute, Maiatzaren 25etik ekainaren 1era bitartean, lau izarretako hotelean, pentsio osoko erregimenean. Urtero antolatzen du Udalak 60 urtetik gorako mendaroarentzako bidaiaren zozketa.

### Diru-laguntzak Udako Euskal Unibertsitaterako

Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetan parte hartu nahi duten mendaroarreni diruz laguntzeko asmoa du Udalak. Mendaron erroldatuta egotea ezinbestekoa izango da. Izena emateko edo informazioa jasotzeko, Udaleko Kultura Sailera jo daiteke.

### Jubilatu etxeko bazkideek euren eguna ospatu zuten

Lagun Betikoak jubilatuen etxeko etxeko bazkideek euren eguna ospatu zuten apirilaren 28an. Jubilatua mezatan izan ondoren, Luzaiden bazkaldu zuten.

### MunLet taldeak New York hirian joko du

MunLet taldeak kontzertu morderoa eskaintzen dihardu: Bilbon, Gasteizen eta Bermeon emango ditu hurrengoak. Euskal Herriatik kanpo ere ibiliko da: ekainaren 20an Madrilgo Wurlitzer Ballroom aretoan joko du eta abuztuaren 24an New York hiriko TBA aretoan.

## Gure berbak

### Hiztegixa (3)

Pasa dan astian, berba batzuk eka-  
rri nittuan, mendebaldeko hizkeretara  
egitten debenak; era horretakuekin ja-  
rraittuko dogu gaur ere, hiztegixan “biz-  
kaittar” egitten gaittuen berbekin. Hona,  
ba, batzuk:

- ◆ *Martitzena* (eta ez *asteartia*)
- ◆ *Eguastena* (eta ez *asteazkena*)
- ◆ *Eguena* (eta ez *osteguna*)
- ◆ *Barixakua* (eta ez *ostirala*)
- ◆ *Zapatua* (eta ez *larunbata*)
- ◆ *Domekia* (eta ez *jaixa*)
- ◆ *Amaitu* (eta *gitxiago bukatu*)
- ◆ *Argixa ixutu* (eta ez *piztu*)
- ◆ *Argixa emendau* (eta ez *itzali*)
- ◆ *Antxitxika* (*saltaka*-rekin batera)
- ◆ *Artazixak* (*guraiza*-rekin batera)
- ◆ *Oratu* (*heldu*-rekin batera)
- ◆ *Gorantziak* (eta ez *eskumiñak*)
- ◆ *Jausi* (eta ez *eron*)

Azken berba hau dala eta, bitxikerixa  
politta dago Debabarreneko eta Lea-Ar-  
tibaiko kostaldian: Debatik Lekeittiora bi-  
ttartian, lau herritan lau eratara esaten  
da: Deban “*ero(r)*”, Mutrikun “*amilddu*”,  
Ondarruan “*jausi*” eta Lekeittion “*yausi*”  
(hala ahoskatzen da gure jota). Euskal-  
dunen eta euskalkixen konplexutasu-  
nak, gero!

Azken bi herrixen artian ere, bada  
anekdota bitxi bat: Lekeittion esaten de-  
be askoz merkiagua dala “*yatia*” Onda-  
rruan baiño; Lekeittion, gorabeheratxue-  
kin baiña 10-100 euroren bittartian ondo  
lortu leiken bezela “*yatia*”, Ondarruan mi-  
lloiak balio ditu “*yatiak*”, itxasokuak (“*ja-  
tiak*”, berriz, Lekeittion bezela, gutxigora  
behera).

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1988

Aste honetako erretratu zaharra Maria Eugenia Zubiaurrek laga digu. Mendaro-  
ko Ameikutz mendian aterata dago. Argazkian azaltzen diren gizonak Ameikutze-  
ko harria bere lekuan jartzera joan ziren, eta gaur egun oraindik bertan dago harri  
hori. Gogora ditzagun mendaroar horien izenak:

**Goian, ezkerretik eskumara:** Silverio Txurruka, Jose Zabaleta, Tomas Mendi-  
kute (†), Asier Iraolagoitia, Bittorio Garate (†), Txomin Arrizabalaga, Mariano Arrie-  
ta (†), Javier Urain.

**Makurtuta:** Juan Mari Larrañaga.



## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko  
erretratu zaharrak baldin badituzu,  
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.  
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)



## Emaitza onekin hasi du Elgoibarrek Herriarteko Pilota Txapelketa

Lehenengo partidari Lasarte garaitu du

**P**ilota ezagutzen duenak, badaki Herri arteko txapelketak zelako garrantzia duen. Joan den astean jokatu zuten elgoibartarrek lehenengo kanporaketa Lasarteren aurka, eta hiru partidetatik bi irabazita, aurrera egitea lortu zuten. Aste honetan bueltako partida jokatuko dute, eta berriro ere irabazi egin beharko dute aurrera jarraitu nahi izanez gero.

Irabaziz gero, hurrengo aurkaria Donostia izango da. Talde indartsua da Elgoibar, eta aurrera jarraitzeko aukera handiak ditu. Bestalde, Debarroko txapelketa ere ari dira jokatzeko, eta bigarren doaz elgoibartarrak.



## Mugerza krosa Europako seigarren onena da

Europako kros guztiak kontutan hartzen dituen azterketa egin du Espainiako Atletismo Federazioak. Azterketan oinarrituta sailkapen bat ere eman du ezagutzera, Europako krosik onenen sailkapena, eta Juan Mugerza Nazioarte-ko krosa seigarren postuan dago. Bosgarren urtez jarraian hobetu ditu emaitzak Mugerza krosak.

## Javier San Andres eta Jon Angulo golfean onenak



Joan den astean golfeko San Prudentzio Txapelketako finalak jokatu zituzten Larrabeako golf zelaian, eta tartean Elgoibarko bi jokalaririk ari ziren: Javier San Andres eta Jon Angulo. Guztira 41 puntu lortu ondoren, lehenengo postua eskuratu zuten herritarrek. Aurrez ere garaikurra lortu izan dute biek: iaz, bi eron zituzten etxera.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi **3** - Zamudio **3** (3. maila)  
 Aretxabaleta **2** - Elgoibar **1** (1. erreg.)  
 Elgoibar **1** - Intxaurren **2** (Jub.)  
 Elgoibar **1** - Arrasate **0** (Kad.)  
 Elgoibar **3** - Ordizia **0** (Inf.)  
 Hondarribia **4** - Elgoibar **3** (Txik.)  
 Elgoibar **2** - Segura Goierri **1** (Nesk.)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. **4** - Kenci Elg. **2** (Nazional B)

### ESKU PILOTA

#### MATIENAKO TXAPELKETA

Loiola-Renobales **22** / Andreu-Mendilibar **14** (Nag.)

#### LAGUNAK TXAPELKETA

Larruskain **18** / Ruiz **15** (Ale.)  
 Maiztegi **18** / Ansola **12** (Ale.)  
 A. Astigarraga **18** / I. Ansola **9** (Ale.)  
 Loidi **13** / Idigoras **18** (Ale.)  
 Bilbao **18** / Baz **17** (Ale.)

#### HERRIARTEKO TXAPELKETA

Lasarte-Oria **12** / Elgoibar **22** (Kad.)  
 Lasarte-Oria **22** / Elgoibar **16** (Jub.)  
 Lasarte-Oria **4** / Elgoibar **22** (Nag.)

#### DEBARROKO TXAPELKETA

Lagunak **11** / Aretxabaleta **22** (Kad.)  
 Lagunak **14** / Arrasateko **22** (Nag.)  
 Eskoriatza **10** / Lagunak II **22** (Nag.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9  
 10:30 Elgoibar - Ostadar (Jub.)  
 16:30 Elgoibar - Ostadar (Txik.)  
 Domeka, 10  
 11:00 Elgoibar - Urola (Ale.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 9  
 9:30 Ikus - Arrate (Kad. neska)  
 17:30 Alkorta - Eibarko Haritza (Sen. mut.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 8  
 Herriarteko Txapelketa  
 19:00 Elgoibar - Lasarte (Maila guztiak)  
 Martitzena, 12  
 Debarroko Txapelketa  
 19:00 Lagunak - Aretxabaleta II (Jub.)  
 Ondoren Lagunak I - Aretxabaleta (Nag.)

# AMETS ZURI-GORRIA

Juanjo Gurrutxaga eta Mikel Dakinta

Athleticek eta Bartzelonak jokatuko dute datorren maiatzaren 13an Errege Kopako finala. 25 urteren ondoren iritsi da talde zuri-gorria txapelketako finalera, eta zaletuak pozarren daude. Bilbo eta Bizkaia osoak kolore zuri-gorria hartu du azken egunotan. Elgoibarren ere Athletic zale asko dago, eta horietako birekin hitz egin du BARREnek. Juanjo Gurrutxagak eta Mikel Dakintak final hau zelan bizi duten kontatu dute.



## “Sekulakoa izango litzateke Etxebek garaipenaren gola sartzea”

**A**thleticen zalea izatea erlijio baten jarraitzaile izatea modukoa dela esanez hasi da elkarrizketa: “Mundu osoan aurkitu daitezke Athleticen zaleak, eta edozein lekutan ikusten da jendea kamiseta zuri-gorria jantzita. Athletic erlijio baten modukoa da, San Mames katedrala da, eta Etxebe da erregea”. Athleticen zaleen ahotik entzundako hitzak dira. Amets batean murgilduta daudela azaldu dute Juanjo Gurrutxagak eta Mikel Dakintak. Sevillaren kontrako finalerdia gainditu zutela sinistea ere kostatu egin zitzailela aitortu dute, baina behin hori lortuta, Athletic edozer egiteko gai dela uste dute: “Finala partida batera jokatuko da, eta edozer gertatu daiteke”.

### Urduritasuna

Maiatzaren 13a gertu dago, eta urduritasuna handitzen ari da. Egun berezia izango da datorren eguaztena: “Ligan salbatuta gaude, eta Kopako finala jokatzea izugarria da”. Juanjok lanean ikusiko du partida, baina telebistari begirik kendu gabe egongo da. Mikel, berriz, Elgoibarreko *katedralean* elkartuko da bere lagunekin: “Elgoibarko Athleticen zaleak Kaia tabernan ikusiko dugu finala, hantxe sufrituko dugu denok”.

Joseba Etxeberria da talde zuri gorriko kapitaina, eta Elgoibarreko zaleentzat harro egoteko modukoa da hori: “Etxebek Bilbon lortu duena izugarria da. Ilek puntan jartzen zaizkit Etxebek Erregearen Kopa altxatuko duen unearekin pentsatzen dudanean. Eta garaipenaren gola sartuko balu... sekulakoa izango litzateke”. Gogoan daukate Etxebek Zaragozari sartutako golari esker Txapel-dunen Ligarako sailkatu ziren unea: “Pol-Pol tabernan ikusi nuen, eta taxien geltokiraino korrika joan nintzen, pozaren pozez”, esan du Dakintak.

### Elgoibartarrak Valentzian

Juanjo eta Mikel ez dira Valentziara joango, baina izango da elgoibartarrik finalean bertan: “Ikaragarria izango litzateke, baina gu ez gara joango”, esan dute. Hala ere, Gabarra ateratzen badute, Bilbon izango direla esan dute: “Urte asko pasatu dira azken finala jokatu zuenetik, gehiegi, eta horrelako bat behar genuen”. Athleticen aldeko sentimendua txiki-txikitatik daramate bihotzean, eta urteekin areagotu egin dela azaldu dute. “Aupa Athletic”, esanez agurtu dira biak.



# Joseba Etxeberria

Athleticeko jokalaria

**“Nire futbol ibilbideko partidarik garrantzitsuena izango da Errege Kopako finala”**

**Zelan bizi duzue taldean Errege Kopako finala?**

Guretzako final oso berezia da. 24 urte pasatu dira azken finala jokatu genuenetik, eta oso garrantzitsua izango da. Bartzelona oso momentu onean dago, eta zaila izango da irabaztea, baina ilusioz beterik gaude. Gainera, nahiz eta matematikoki oraindik ez ditugun beharrezko puntu guztiak lortu, badirudi Ligan salbatu garela, beraz, Kopako finalean zentratuta gaude erabat, eta lasaigo joango gara Valentziara.

**Eta Bilbon, nola bizi dute zaleek?**

Jendea erotuta dabil! Finalerdiak pasatu genituenetik, Bilbon zorarena dago. Sarrerak lortzeko zailtasunak daude, eta urduritasuna nabari da kalean. Urte gehiegi izan dira Errege Kopako final bat jokatu gabe, eta normala da. Sekulako giroa dago. Maiatzaren 13a egun handia izango da bai Valentzian, eta baita Bilbon ere. Gure ilusioa zaletu horiei kopa eskaintzea da.

**Zure futbol ibilbideko partidarik garrantzitsuenaren aurrean zaudela esan daiteke?**

Bai. Urte asko daramatzat futboleant, momentu onak eta txarrak bizi izaten, eta gauza asko bizi izan ditut, baina hau da garrantzitsuena. Txapelidun izateko aukera bikaina daukat. Zaila izango da, baina partida ona egitea espero dut. Gainera, datorren urtea izango da niretzako azkena, eta hau ere izango da nire azken aukera. Kopa Bilbora ekartzea espero dut.

**Zenbat aldiz egin duzu ametsetan Juan Carlos erregeak emandako kopa altxatzeko momentuarekin?**

Askotan! Oso gazte etorri nintzen Athletice-ra, eta txapelketa hau oso berezia da Bilbon. Mestallan edozer gertatu daiteke, eta ea azkenean guretzako den kopa. Aukera hori aprobetxatu behar dugu.

**“Zaila izango da irabaztea, baina ilusioz beterik gaude”**

**Lesio bat izan duzu. Badaukazu jokatzeko itxaropenik?**

Itxaropena badaukat. Azken boladan ez nabil gehiegi jokatzeko, baina partida guztietan izaten dira aukerak, eta espero dut final horretan parte hartzea, eta batez ere, irabaztea. Urte gehiegi pasatu ditugu final bat jokatu gabe, eta orain, 24 urteren ondoren, berriro daukagu aukera hori.

**Messi, Eto'o, Henry... izen handiak dira. Horiek geratzeko metodorik?**

Ez da erraza izango! Oso jokalaririk onak dira, eta gainera momentu oso onean daude

denak. Hala ere, partida batean edozer gertatu daiteke! Gu adibidez, jokaldi estrategikoetan eurak baino hobeak gara, kornerretan edo alboko sakeetan, adibidez. Horrelako jokaldiren bat ondo aprobetxatzen badugu, finala gure alde jarri dezakegu.

**Bartzelonaren kontra jokaturako azken finalean Maradona lesionatu zen, eta sekulako haserrearekin piztu zen. Ez ote da aurtengoa ere halakoa izango, ezta?**

Emaitza berdina baldin bada, niri ez zait inporta! Egia esanda, partida garbia eta polita izatea espero dut, baina azkenean garrantzitsuena emaitza da. Bakoitzak berea nahi du, eta gure helburua irabaztea da. Bartzelona txapelketa askotan sartuta dago, eta denak irabaztea nahi dituzte, baina gure ahalegin guztia, Kopan zentratuta dago une honetan. Irabazteko ahalegin guztiak egingo ditugu.

**Elgoibarko zaleekin ere akordatuko zara Kopa altxatzen baduzu, ezta?**

Bai, dudarik gabe, kopa altxatzen badut elgoibartarrekin ere gogoratuko naiz. Elgoibarren Athleticeko zale asko dago, eta badakit gainera, partida horren zain dardela. Elgoibartar batek Kopa hori altxatzea polita da eurentzat ere. Ea argazki hori geure egiten dugun.

**Ausartzen zara partidako emaitza ematen?**

2-0 Athleticeko alde. Ea suertaririk daukagun!

## Gastadoreen konpainia elgoibartarra edukiko du aurten danborradak

Bi hilabete daramatzate entsegatzen Trinitate jaietako danborradan dena ondo irteteko

**E**kainaren 6tik 7rako gauean Trinitate Jaietako nagusien danborrada egingo dute. Arrakasta itzela edukitzen du urtero danborradak, eta aurten, berrikuntza batekin dator: gastadoreen konpainia elgoibartarra edukiko du lehenengoz. Egun handian dena ondo irteteko gogor entsegatu behar izaten da, eta gastadoreek bi hilabete daramatzate eguazteneko Merkatu Plazan batzen.

Konpainia berriak kabo bat (Jon Lizarralde) eta hamabi gastadore edukiko ditu, eta Eibarko Juan Luis Bagliettoren zuzendaritzapean ari dira koreografia berria prestatzen; hamabi piezarentzat pausuak. Baglietto gastadorea da Eibarko danborradan; 30 urte daramatza parte hartzen.

### Erakuslehiio lehiaketa

Bestalde, Danborradaren Batzordeak eskarparate lehiaketa antolatu du bigarren urtez jarraian; Coviran supermerkatuak irabazi zuen iaz estreinako edizioa.



## Domekan Eguesibarren joko dute herriko akordeoilariak



Martxoaren 27an Sabadellen jo zuten Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako akordeoilariak, eta domekan Barañaingo kaperan joko dute 17:00etan. Maite Janeiroren zuzendaritzapean Jose Tomas Porto akordeoienezako idatzitako fabula joko dute elgoibartarrek. Sabadell, Barañain, Eguesibar, Gares eta Elgoibarko ikasleek egindako trukearen ondorioz ari dira kontzertuak eskaintzen, eta Elgoibarren ekainaren 21ean joko dute. Irudian, Elgoibarko ikasleak Sabadelleko irakaslearekin.

## ‘Ahozkotasuna eta Bertsolaritza’ jaialdia egingo dute hilaren 19an

Gipuzkoa osoan 7.000 ikasletik gora daude egitasmoan

**M**aiatza hastearekin batera, aurten ere martxan dira *Ahozkotasuna eta Bertsolaritza* egitasmo moko jaialdiak. Gipuzkoa osoan 57 jaialdi egingo dituzte: Elgoibarkoa, maiatzaren 19an izango da, 18:30ean, Herriko Antzokian.

Bertoaren bitartez irudimena, diskurtsoak garatzeko gaitasuna, hizkuntzarekiko harreman ludikoa eta elkarriketarako baliabideak lantzen dituzte, besteak beste. Aurten 7.000 ikasletik gora ari dira parte hartzen egitasmoan.

Gipuzkoako Bertsotale Elkarteak herrialde osoko hainbat Udal eta ikastetxerekin elkarlanean daraman proiektua da *Ahozkotasuna eta Bertsolaritza*, eta iaz Elgoibarko 135 umek hartu zuten parte. Proiektuan ikasitakoa jendearrean erakusteko aukera izango da hilaren 19ko jaialdia.



### **Ikastolak bost sari jaso ditu ‘Kosmodisea’ egitasmoan**

Gipuzkoako Foru Aldundiak ekintzailetasuna sustatzeko programa pedagogikoak jartzen ditu martxan; tartean, *Kosmodisea*. Internetez parte hartzeko joku didaktikoa da *Kosmodisea*, eta 6 eta 18 urte bitarteko ikasleentzako. Guztira 38 ikastetxek hartu dute parte: 80 irakaslek eta ia 1.500 ikaslek. Tartean, Elgoibarko Ikastolako irakasle eta ikasleek. Astelehenean Donostiako Kursaal aretoan sari banaketa egin zuten, eta elgoibartarrak bost sarirekin itzuli ziren etxera.

### **‘Los Gavilanes’ zarzuela entzun ahal izango da gaur**

Bilboko Masa Coral del Ensanche taldeak gaur *Los Gavilanes* zarzuela abestuko du zuzenean. Herriko Antzokian izango da emanaldia, 21:30etik aurrera. Azken urteotan etorri izan da talde bilbotarra Elgoibarrera, eta arrakasta handia lortzen du.

### **‘Bourbonetik Broadwayra’ kontzertu pedagogikoa**

Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolak Kutzarekin elkarlanean kontzertu pedagogikoak antolatzen ditu herrian. Ikasleentzako kontzertuak izaten dira: lehena 6 urtera arteko ikasleentzako izaten da eta musikari elgoibartarrek jotzen dute. Bigarrena, 6 eta 10 bitarteko ikasleentzako izaten da, eta kanpoko talde bat ekartzen dute. Datorren egunean, hilaren 14an, *Bourbonetik Broadwayra* kontzertua emango du Donostiatik etorritako talde batek.

Elgoibarko hiru ikastetxeetako 400 ikasle inguru bilduko dira Herriko Antzokian, 10:30etik aurrera, musikaren inguruan gehiago ikasteko. Hamar urtetik gora daramatza musika eskolak kontzertu horiek antolatzen, eta arrakasta izaten dute.

## ‘Semana das letras galegas’ jaia ospatuko dute asteburuan Elgoibarko galiziarrek



Gaur hasi eta asteburu osoan *Semana das letras galegas* jaia ospatuko dute Elgoibarko galiziarrek. Galiziako kulturari arrastoa hartzeko aukera da asteburu hau: hango musika eta gastronomiaz gozatu ahal izango da egunotan. Aurten, gainera, Ramon Piñeiro Lopez omenduko dute. Egitaraua agendan irakurri daiteke.

**LANA**

**ESKAERA**

- Aholkulari nutrizionista batek bere zerbitzuak eskaintzen ditu, hobeto elikatu edota pisua jaisteko. Inolako konpromisorik gabe. ☎687 077 398
- Gizona lanerako prest. ☎686 161 828
- Mutila lanerako prest. ☎626 149 705
- Mutila lanerako prest. Galdaragintzan laguntzaile gisa eta eraikuntzan esperientziarekin. ☎669 285 475
- Emakumea lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen esperientziarekin. ☎686 578 228 / 943 531 385
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez. ☎943 74 32 51
- Emakumea lanerako prest, garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzen. ☎636 120 425
- Emakumea garbiketa lanak, haurrak eta nagusiak zaintzeko prest edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko prest. ☎618 163 061
- Neska lanerako prest, umeak edo nagusiak zaintzen eta etxeak garbitzen. Goizez. ☎943 74 00 65
- Emakumea sukaldean laguntzeko, garbiketa lanerako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎671 343 612
- Emakumea garbiketa lanerako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎943 53 19 03 / 669 311 385

- Neska gaztea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎657 142 376
- Klase partikularrak emango nituzke, ingelesez eta frantsesez, biak ama hizkuntza. Mintza praktikak egiteko. ☎688 683 274
- Zerbitzari edo beste edozein lanerako prest nago. ☎617 005 381
- Gizonezkoa lanerako prest. sukaldari laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile, apal-betetzale edo beste edozein lanetan. ☎664 055 503
- Mutila lanerako prest, eraikuntzan esperientziarekin. ☎669 285 475
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎638 344 377
- Neska pertsona nagusiak zaintzeko edota portalak, tabernak eta lokalak garbitzeko prest. ☎699 609 190
- Emakumeak zerbitzari gisa (esperientziarekin), haurrak edo nagusiak ziantzen edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎617 056 828

**ESKANTZA**

- Zerbitzari gaztea behar da, ahal dela esperientziarekin asteburretan lan egiteko. ☎ 943 53 16 28

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Etxebizitza alokatzen da Elgoibarren, altzariek. ☎ 636 233 175
- Etxebizitza alokatzen da Elgoibarko plazan, lau logela, egongela, bi bainugela, sukaldea, jangela eta terraza. ☎ 619 409 273
- Etxebizitza alokatzen da San Pedron. ☎ 695 787 766
- Etxea alokatzen da Gasteizen. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, bi terraza eta ganbara. Den altzaritua. ☎ 628 232 931

**BESTELAKOAK**

- Etxeko altzariak, etxeko elektrotresnak, gortinak eta ohe-arropak behar dira. ☎ 676 444 171

**OHARRA:**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

**MODULOAK**


Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
<i>Astebete : 5 euro</i>	<i>Astebete : 10 euro</i>
<i>2 aste : 8 euro</i>	<i>2 aste : 17 euro</i>
<i>3 aste : 10 euro</i>	<i>3 aste : 25 euro</i>

**GIDA KOMERTZIALA**  
**2009-2010**

Gida komertziala prestatzen ari gara,  
 zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

**943 743 704**  
 edo helbide honetara idatzi:

**barren.publi@elgoibarkoizarra.com**



• Zorionak, **Iker Alava**, maiatzaren 5ean 4 urte egin dituzulako. Ane eta Rosaren partez. Txapel-dun!



• Zorionak, **Yanela Haizea**, bihar 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat zure osaba-izeba eta aitona-amonen partez.



• Asko maite zaituzten lagun batzuren partez, zorionak, musutxo bat eta ondo pasatu domekan, **Janirel**



• Zorionak, **Enekol** Igandean 6 urte betetzen dituzulako. Muxu asko aittite-amona eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Maria**, atzo 7 urte bete zenituelako. Muxu asko gurasoen partez, eta bereziki Jonen partez.



• Zorionak, **Iker**, maiatzaren 5ean 7 urte bete dituzulako. Familiakoen, eta Julen eta Asierren partez.



• Zorionak, **Danel**, joan den astelehenean 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia eta lagunen partez.



• Zorionak, **Iraitz**, gure futbolistari, domekan 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Beñat**, eguaztenean 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Sareren partez.



• Zorionak, **Jon Sota**, apirilaren 28an 3 urte bete zenituelako. Gurasoen eta anaiaren partez, eta familia-ko gainerako guztiak.



• Zorionak, **Eritz**, gaur 2 urte betetzen dituzulako. Muxu bat Markel eta etxekoek partez.



• Zorionak, **Unax**, 5 urte betetzen dituzulako. Muxu potolo bat Naroa eta Irairen partez.



• Zorionak **June** !! Zazpi patxo handi gure dantzari-ari etxekoek eta bereziki, Lukenen partez.



• Zorionak, **Marina**, zure zortzigarren urtebetetzean. Familiaren partez, eta bereziki Celia, Jara, Maria eta Ireneren partez.



• Zorionak, **txapeldun**, gaur 5 urte bete dituzulako. Muxu haundi bat etxekoek eta bereziki, Martinen partez.



• Zorionak, **Nerea**, familia guztiaren partez.



• Zorionak **Saioa**! Urtebete egin duzu eta. Uxue, Jon eta Nahiaren partez.



• Zorionak, **Izaro**, hilaren 9an 5 urte egiten dituzulako. Familiaren, eta bereziki Urkoren partez.



• Maiatzean urteak betetzen dituzten **Leire eta Haitzeri** mila kilo zorion familia guztiaren partez!!!!



• Zorionak, **Leire eta Arnaia** familia guztiaren partez.



• Dantzan ezagutu zenuten elkar, ta egun jarraitzen duzue dantzan. Guk ere dantzan egin nahi dugu zuekin, bion inguruan, jai-giroan. Ondo pasau familiaren, eta nola ez, Haizea, Garazi, Nere ta Iñin partetik.



• Zorionak, **Maider eta Ane** domekan lehenengo jaunartzea egingo duzuelako, eta zorionak, **Maider**, gaur 9 urte betetzen dituzulako. Muxuak familien partez!



• Zorionak, **bikote** domekan 7 eta 13 urte beteko dituzuelako. Ondarroako eta Elgoibarkoen partez.

## OHARRA

Maiatzean agurrak kobratzen hasi gara.  
**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukotea edo handiagoa: 5 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**OKINDEGIAK**

8 domeka **BOLINTXO**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 8 Yudego
- 9 Zabaleta  
*(\*Goizez Etxeberria E.)*
- 10 Zabaleta
- 11 Etxeberria (Errosario)
- 12 Ibañez
- 13 Garitaonaindia-Bidasolo
- 14 Etxeberria (Santa Ana)
- 15 Fernandez

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**

Egin klik



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



**8 barixakua**

**Astialdia**

**17:30** Kiribilka egitasmoa

Elgoibarko Izarrak antolatuta, bitik sei urtera bitarteko umeentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian.

**Musika**

**21:30** Zarzuela

Masa Coral del Ensanche taldeak, *Gavilanes* zarzuela taularatu du. Herriko Antzokian.

**9 zapatua**

**Kirola**

**11:30** Atxutxiatxintxika

Atxutxiamaika aisialdi taldeak antolatuta, hiru eta bost urte bitarteko umeentzako lasterketa. Irteera eta izenematea Plaza Handian.

**Autobusa**

**12:45** AHT Gelditu

AHT Gelditu Elkarlanak Abiadura Handiko Trenaren kontra Iruñean deitutako nazio manifestaziora joateko autobusa. Txankakuako geltokitik.

**13 eguaztena**

**Ikus-entzunezkoa**

**21:30** Euskal

**mendizaletasunaren historia** Morkaikok antolatuta, Antxon Iturrizak *Pirinioetatik Everestera* 1939-1980 ikus-entzunezkoa eskainiko du. Musika Eskolako auditorioan.

**14 eguena**

**Musika**

**10:30** Kontzertu pedagogikoa

Kutzak eta Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, *Bourbonetik Broadwayra* kontzertu pedagogikoa izango da. Herriko Antzokian.

**Hitzaldia**

**19:30** Greba deialdia

ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariak maiatzaren 21eko greba deiladiari buruzko hitzaldia eskainiko dute.


**LUDOTEKAKO EKINTZAK**



**LUDOTEKAN  
BAZKIDETZEKO  
HIRUGARREN EPEA  
ZABALIK**

**MAIATZETIK UZTAILERA 10  
ANIMA ZAITEZ!!**

**GAZTELEKUKO EKINTZAK**



**ROCK ZALEA  
ZARA?**

**GAZTELEKUAK ROCK BAND  
TXAPELKETA ANTOLATU DU.  
SORTU ZURE TALDEA ETA  
ERAKUTSI ZERTARAKO  
GAI ZAREN!  
ZAPATUTIK AURRERA  
GAZTELEKUAN.**

**«Bienvenidos al norte»**

9, zapatua: 19:00/22:15  
10, domeka: 19:00  
11, astelehena: 21:30

Frantzia, 2008. Zuz.: Dany Boon. Akt.: Kad Merad, Dany Boon, Zoe Felix, Philippe Duceqne. 106 min. Philippe Abrams Salon-de-Provence herriko posta zuzendaria da, eta Julierekin ezkondata dago. Emazteak

izaera depresiboa du, eta horrek bizitza zaildu egingo dio Philipperi. Lan kontuak direla eta, iparraldeko herri batera bidaliko dute. Beste bizimodu bat hasiko du han, lehengoaren aldean oso ezberdina.





## Gure gomendioa

### Kiribilka

Gaur, barixakua, 17:30ean Plaza Handian

Kiribil barraskilo erraldoia gaur arratsaldean itzuliko da Plaza Handira. Elgoibarko Izarrak antolatuta, animalien gaia landuko dute aurtengo ikasturtean. Bitik sei urtera bitarteko eta euren gurasoentzako egitasmoa da, eta helburua familian euskara sustatzea da.

## LAS LETRAS GALEGAS

### 8 BARIKAKUA

**19:30** *Dia das letra Galegas* jaien inaugurazioa. Alfredo Etxeberria alkateak eta Galiziako Kultur Etxeko presidentek moztuko dute zinta.

**Ondoren**, Galiziako produktu tipikoen dastaketa. Etxeko bazkideek zerbitzatuko dituzte, eta Orenseko Alicia de Arcos *pulpeiroaren* laguntza edukiko dute.

**21:00-22:00** Orkestra Principalen emanaldia.

**23:00** Orkestra Principalen emanaldiaren jarraipena

### 9 ZAPATUA

**11:00** Galiziako jaki berezien dastatzea Aita Agirre plazan.

**13:00** Vermut dantza.

**18:30** Euskal Herriko eta Galiziako dantza taldeen emanaldia. Haritz euskal dantzari

taldeak eta Banda de Gaitas lixrok hartuko dute parte.

**20:00** Galiziako produktuen dastatzea Aita Agirre plazan.

**20:30-21:00** Orkestra Principalen emanaldia.

**23:00** Dantzaldia.

**24:00** Xoxe Antonio Vilaboa druidak egindako queimada.

**Ondoren**, oskestra Principalen emanaldia.

### 10 DOMEKA

**10:00** Hildako bazkideen omenezko meza Santa Klarako elizan.

**11:30** kalejira banda de Gaitas de lixroekin.

**13:00** Banda de Gaitas de lixioren ekitaldia Aita Agirre plazan.

**14:30** Bazkari ofiziala Galiziako Kultur Etxeko egoitzan.

**18:00** Dia das letra Galegas jaien amaiera.

# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Excel aurreratua

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-05-25  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Maiatzak 25

### 3D diseinua

Norentzat: Oinarrizko jakintza dutenentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-05-11  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Maiatzak 11

### Muntaketa mekanikoa

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-06-01  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: Ekainak 1

### Reiki ikastaroa

Norentzat: Oinarrizko jakintza maila dutenentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-06-06  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 665 743 217 telefonoan

### Word aurreratua

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-06-08  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: Ekainak 8

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71



**URKIDI**  
AHOLKULARITZA



Antonio Urkidi  
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12

**INTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xiztion, 2 - 3.sotak 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

txatxaran



## eire vila

**Eire Vilak ikusentzunezko komunikazioa ikasi du Leioan, eta kamerarekin hasi zen lanean. Orain argiztapenaren inguruko beste ikasketa batzuk egin eta teknikari dihardu praktiketean. Kamera atzean lan egitea gustatzen zaio Vilari, eta krisiak alor guztietan eragina izan arren, udan kontzertuetan-edo lana topatzeko asmoa dauka.**

### “Asteburuetan hiru partida ikusten nituen lanagatik”



**Ikusentzunezko komunikazioa ikasi zenuen Leioan, zer dela eta erabaki zenuen bide hori hartzea?**

Beti gustatu izan zait zinema, telebista eta musika mundua, eta praktiketako aukeretan tekniko lan bakarra kamerarekin zegoen. Errealizazioan edo kamera bezala lan egin nahi nuen, argi neukan kamera atzean egin nahi nuela lan.

**Errealizazioan ala kamera batekin nahiago duzu?**

Egia esan ez dakit, errealizazioan ez naiz egon; laguntzaile bakarrik, eta biak gustatu zaizkit.

**Soinuaren inguruko beste ikasketa batzuk egin dituzu orain. Zer moduz moldatzen zara alor horretan?**

Praktikak egiten ari naiz orain, eta asko gustatzen zait. Soinu mahai handiarekin aritzen naiz, kontzertuetan-eta. Mikrofonoak eta gainerako soinua kontrolatzen dira bertatik. Kontzertuetan bi gauza kontrolatzen dira: nire arduraren soinua da, eta beste bat argiaz arduratzen da. Baina hor ere hasi naiz muturra sartzen; klase batzuk eman dizkirate, eta banabil zerbait egiten. **Kamera analogikoak pisu handia dauka, zelan moldatu zara sorbaldan hartuta?**

Askotan gertatu zait bakarrik joan behar izatea. Asteburuetan egin dut lana telebista, gehienbat kiroletan. Beraz, partidueta-  
ra joaterakoan kamera, tripodea eta guztia nik eraman behar izan dut, eta bizkarrean

igartzen da. Kazetaria alboan daukazunean askoz hobeto moldatzen zara: batek tripodea eta besteak kamera hartzen baitu. Tzarrena kotxetik gauza guztiak atera behar izatea da. Gero futbol zelaian tripode gainean edukitzen da kamera, eta hori eroso da.

**Eta kamerarekin batera eta bestera ibili zara?**

Magazinetarako ere egin dut lan, eta kazetaria kalean elkarrizketa luzeak egiten hasten denean, sorbaldan igartzen da. Bestela, ondo.

**Kirol asko ikusiko zenuen lana dela eta ez dela. Gustatzen zaizu?**


Beti gustatu izan zait kirola, eta asteburuetan hiru partida ikusten nituen lanagatik.

**Lanetik kanpo ere kamera soinean eramaten duzu?**

Egia esan, badaukat, eta erabili izan dut, baina ez daukat beti soinean. Argazki kamerarekin gehiago ibiltzen naiz bideo kamerarekin baino. Baina, adibidez, dantza taldean nago eta askotan aritzen naiz gauzak grabatzen.

**Lanean bizi izan duzun egoera xelebreena?**

San Mamesen partida aurretik beroketak grabatzen genituen aulkiaren inguruan, eta beste kamera batzuekin berrikeretan geunden. Ikusleen artean andre bat etorri zitzaigun errautsekin, eta mesedez zelaira botatzeko eskatu zigun.



# LURRALDEBUSeko istorioak

**LURRALDEBUS**

**José Juan, 19 urte**

"Oposizioak egitetik dator.  
Ez du gau osoan lorik egin  
eta orain lanera joan  
beharra du."

Jatorria: Lasarte-Oria  
Norakoa: Donostia Amara

**Angel, 57 urte**

"Bilera batera doa.  
Jose Juanen adinekoa den  
eta beti festarik festa  
dabilen seme bat du."

Jatorria: Tolosa  
Norakoa: Donostia Amara

[www.lurraldebusekoistorioak.com](http://www.lurraldebusekoistorioak.com)



**GIPUZKOA**

zurekin, aurrera >



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



Iturgintza,  
berogailua,  
eguzki energia,  
gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioa  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta  
erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



Autoentzako  
tindatutako  
kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

### Desigual

San Inazio, 5 behea  
☎ 943 748 925  
☎ 677 846 069  
Faxa: 943 531 502  
pinturasdesigual@hotmail.es



## Lorzaintza

### Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307

